



## Goierriko ahozko ondarearen bilketa eta ikerketa: Ikerketa Beka 2021

### DEIALDIAREN XEDEA

Goierriko ahozko ondarearen (kantu, ipuin, bertso, atsotitz, esapide...) bilketa eta hari buruzko ikerketa bultzatzeko xedea du Kilometroak Kultur Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiak deitutako ikerketa beka honek. Kilometroek eta Mintzolak deitzen dute ikerketa beka, Andramendi, Jakintza eta San Benito ikastolen eta Gerriko Kultur Elkartearen babesarekin.

**Goierriko ahozko ondarearen bilketa, ikerketa eta haren dibulgazioa egitea** da deialdi honen xedea.

**Deialdi hau Goierri eskualdeko edo bertan kokatutako herri bateko ahozko ondarearen bilketari eta ikerketari buruzko proiektuetarako da.** Jasotzen diren ikerketa proiektuak aztertu eta gutxieneko maila dutenen arteko onenari esleituko zaio beka. Hautatutako proiektua gauzatzeko urtebeteko epea edukiko du proiektuaren egileak (edo egileek). Ikerketa proiektuak norbanako edo talde batek aurkez ditzakete, eta beraz, baita gauzatu ere.

### PROZEDURA

- 3.000 euroko dirulaguntza bat esleituko da.
- Dirulaguntza jasotzeko ezinbestekoa da unibertsiteate ikasketetan tituluduna izatea 2021eko ekainaren 30a baino lehen (taldeen kasuan, kide guztiak).
- Epai-batzordea babesleak diren Gerriko Kultur Elkarteko, ikastoletako, Kilometroak Kultur Elkarteko eta Mintzola Ahozko Lantegiko ordezkari banaz osatuko da.
- Aurkezturiko curriculumak eta ikerketa proiektuak epai-batzordeak baloratuko ditu. Puntu gehien lortzen duen hautagaitik gutxien dituenara zerrenda egingo du epai-batzordeak. Beka eskuratzea merezi duten hautagaien artean puntuazio altuenak lortu duenari esleituko zaio beka. Bekari uko egin edo beka jasotzea ezinezko egingo lukeen egoerarik gertatuko balitz, zerrendako hurrengoari esleituko litzaioke.
- Batzordeak proiekturik aurkeztu dutenei elkarrizketa pertsonala egiteko aukera edukiko du.
- Epai-batzordeak aurkeztutako proiektuek aski kalitate ez dutela iritziko balie, bekarik ez esleitzea erabaki lezake.
- Bekaren %60 erabakia publiko egin eta 30 eguneko epean ordainduko da; gainontzeko %40a lana burututakoan gauzatu da.
- Proiektuari dagokion ikerketa lana gauzatu 2022eko uztailaren 15a baino lehen helarazi beharko da idatzita. Beraz, bekaren esleipenetik urtebeteko tartea edukiko du ikertzaileak proiektua gauzatzeko. Aurkeztutako lana ontzat eman beharko du epai-batzordeak.



## ESKARIAK

- Ikerketa proiektua eta beherago eskatutako agiriak Mintzola Ahozko Lantegiko zuzendaritzari bidali behar zaizkio posta arruntaz edo eskuz (Mintzola Ahozko Lantegia. Subijana Etxea. Kale Nagusia, 70. 20150 Amasa-Villabona).
- Ikerketa proiektuak deialdi honetan den eskari orria beteta aurkeztu behar dira.
- Eskariak aurkezteko epea: 2021eko ekainaren 30era arte.
- Eskaerarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:
  - a) Nortasun agiriaren fotokopia. Taldea den kasuan, kide guztien nortasun agirien fotokopia.
  - b) Deialdi honetan oinarriekin batera argitaratutako eskaera inprimakia.
  - c) Eskatzailearen CVa; edo eskatzaileen CVak, taldea den kasuan.
  - d) Espediente akademikoaren kopia; edo espedienteen kopiak, taldea den kasuan.
  - e) Ikerketa-proiektua: ezinbestean agertu behar dira helburuak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia (1.500-5.000 hitz). Ikerketa proiektua bera ondorengo e-postara ere bidali behar da PDF formatuan: [administrazioa@mintzola.eus](mailto:administrazioa@mintzola.eus)

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- Proiektuak honako irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:
  - o Proiektuaren helburuak eta interesa.
  - o Proiektuaren ebaluazio orokorra: esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia.
  - o Proiektuaren garapen maila.
  - o Proiektuaren bideragarritasuna.
  - o Eskatzailearen espedientea: CVa(k) eta espediente akademikoa(k).
  - o Euskarazko proiektuak soilik onartuko dira.

## DATAK ETA INFORMAZIOA

- Proiektuak aurkezteko epea: 2021eko ekainaren 30era arte.
- Beka jasoko duen ikerketaren eta ordezkoen zerrenda argitaratzeko azken eguna: 2021eko uztailaren 15a.
- Ordainketa: %60a 2021eko uztailaren 15aren asteen egingo da; gainontzeko %40a ikerketa lana amaitutakoan, 2022ko uztailaren 15ean, beranduenez.
- Proiektuaren araberako ikerketa lana eginik idatzita entregatzeko epea: 2022ko uztailaren 15ean, beranduenez.
- Ikerketa lana osorik edo zatika argitaratzeko zein baliatzeko eskubidea edukiko dute deialdiko antolatzaileek.
- Ikerketa beka honen babesleak diren ikastoletako web orrietan, Kilometroak jaialdiko atarian ([www.kilometroak.eus](http://www.kilometroak.eus)) eta Mintzola Ahozko Lantegiaren atarian ([www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus)), argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa eta urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabeherei buruzko galderak honako helbide elektroniko honetara zuzenduko dira: [administrazioa@mintzola.eus](mailto:administrazioa@mintzola.eus).